

# IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA



**Pausoz pauso aurrera!**



## Kaixo herrikide!!!

Ta urte berri on!

Urtea hasi genuenetik iada bi hilabete pasa ditugun arren, ezin utzi zuri irakurle, urte berria opa gabe! Azken aldiko eguraldi onek, udaberri usaia

ekarri digute. Baita inauteri giroak ere, lurra esnatzen hasi den seinale. Urteko lehen ale honetan, beti bezala berri ugari bildu ditugu; herri kontseiluko kideei egindako elkarrizketa,

martxoak 8an izango den greba feminista, emakume afaria, herri kontseiluko berriak...

Gustokoa izango duzulakoan, on egin!

# ATE IREKIERA EGINGO DU KOOPERATIBAK MARTXOA BUKAERAN



lehen iritsi dadin. Itxura ona hartzen ari dela adierazi digute.

Momentuz, 106 bazkidek osatzen dute kooperatiba eta hasiera bateko espektatibak bete dituzten arren, bigarren

kanpaina bat martxan jartzeko asmotan dira beste familia batzuek kooperatibako parte izateko aukera izan dezaten.

Azkenik, Martxoaren 31n, berriro ere ATE IREKIERA bat egiteko asmoa dutela adierazi digute, bazkideek obraren gora beherak ikusi eta bazkide berriek proiektua ikusteko aukera izan dezaten.

Kooperatibako obrak erritmo onean doazela adierazi digute bertako kideek. Eraikina kanpotik konponduta dago, solairua berria jarrita du barrutik, leihoak jarri dira eta almagazetako paretak ere jarri dira dagoeneko. Obrak aparte, lan taldeak ere lanean dabilta, lanak koordinatu eta kooperatibako atak irekitzeko aukera lehen bait

## Ttonttorro lanean iada

San Pedro jaiak oraindik urrun ikusi arren, dagoeneko hasi da Ttonttorro Jai Batzordea lanean.

Orain arte bi bilera ireki egin dituzte; otsailaren 7an eragileekin eta bestea otsailaren 13an herritarrekin. Jaiak ahaik eta partehartzaileenak izan daitezen guztion arteko elkarlana beharrezkoa ikusten baitute.

Idea honi jarraiki, ekintza zehatzak antolatzeke lan taldeak osatu dira. Besteak beste, bertso emanaldia antolatzeke eta zein musika talde ekarri erabakitzeko. Herritarren batek ideia edo proposamen berririk izan ez gero edo lan talde zehatz batean parte-hartu nahiko balu beraiekin harremanetan jartzeko deia zabaldu dute.

Ona hemen Ttonttorro Jai Batzordearen emaila:

*Ttonttorro@gmail.com*

## Kooperatibak zozketatutako saskia Groseko bizilagun batentzat

Kooperatibak gabon garaian egin zuen zozketako saskia Groseko bizilaguna den Fermin Martinez de Tolosak eraman zuen etxera. Semearen laguntza ere behar izan zuen saski eder hori eramateko. Zorionak Fermin!

Bestalde, Kooperatibak eske-

rak eman nahi izan dizkie bai bazkideei bai eta parte hartu duten herritar guztiei; proiektuari beste bultzada bat eman izanagatik.







# Herri Kontseiluak batzarra burutu zuen

Azken hilabeteetan egindako lanaren berri eman zuen Herri Kontseiluak batzarrean

Urtarrilaren 13an Herri Kontseiluak sei hileroko batzarra egin zuen. 30 bat

herritarrek parte hartu zuten bertan. Ondoren hamaiketa-koa ere prestatu zuten berta-

ratutakoentzat. Ondorengo gai hauek jorratu ziren.

## Armarria eta logoa aurkeztu ziren batzarrean

Udazken jaian bozka gehien lortutako armarria Txus Galindorena izan zen. Lehiaketako oinarrietan zehazten zen bezala, Herri Kontseiluak egoki ikusitako aldaketak egiteko eskumena zuen.

Beraz, armarri irabazlea oinarri hartuta, azken hilabeteetan artista Herri Kontseiluarekin batera logorako egokitzapenak egiten aritu da. Behin lana bukatuta, Herri Kontseiluko Batzarrean aurkeztu ziren armarria eta logoa.



## Garraioa hobetzeko idatzia sartu da

Badira urte batzuk Behemendik garraio zerbitzua hobetzeko proposamena luzatu zuela. Bertan, landa-guneetako biztanleentzat herrirainoko joan-etorria egiteko zerbitzua aurkeztu zuen. Egun, Usurbilgo Udalak martxan duen zerbitzua

aprobetxatuz Igeldora zabaltzeko aukera aztertuz. Bizilagunek aurretik hitzordua eginda jasoko lukete zerbitzua. Donostiako Udalak honekiko proposamenik luzatu ez duenez, Herri Kontseiluak idatzia sartu du gai honi hel diezaion eskatuz.

Datozen egunetan, Donostibus-izuzendutako idatzia sartuko da. Bertan, egungo Igeldoko linea hobetzeko proposamena egindu Herri Kontseiluak; besteak beste, goizeko ordutegia herritarren beharretara egokitzeko eskatuz.



# Hauteskundeak ate joka

Hauteskunde prozesua azaltzeko bilera informatiboak antolatu dituzte zonalde-ka

Datorren maiatzaren 26an, Udal Hauteskundeekin batera Herri Kontseilua berrituko da.

Hauteskunde hauek ahalik eta zabal eta parte hartzaileenak izan daitezen, Hauteskunde Batzordea lanean hasi da.

Lehen pausua herritar guztiei prozesua azaldu eta guztien artean hautagai zerrenda zabal

bat egitea litzake. Horretarako zenbait bilera informatibo antolatu dituzte zonaldeka.

Ondoren, hautagaiak baieztatu eta hauek ezagutzera emango dituzte etxez etxe bidalitako informazioari esker. Maiatza hasieran zabalduko da hautagai izango direnen zerrenda.

Azkenik, maiatzaren 26an hau-

teskundeak burutu eta Herri Kontseilu berria izendatuko da.

“Prozesu honen zabalpenean, herritarron parte hartzeak garrantzia handia izango du, igeldotar guztiak ordezkatzeko gaituen Herri Kontseilu indartsu bat izan dezagun” adierazi du Hauteskunde Batzordeak.

## **Bilera informatiboak:**

### **Otsailak 28**

19:00etan Tximistarri - Amezti

20:00etan Kaxkoa

### **Martxoak 7**

19:00etan Gure Kaiola - Marabieta - Arriola

20:00etan Gudamendi - Etume

### **Martxoak 14**

19:00etan Arriola - Lapabide - Arritxulo - Buztinzuri

20:00etan Etxe Nagusi - Ekaitz - Pilotegi - Murgil - Egioleta

*Bilera guztiak kultur etxean izango dira.*

***OHARRA: Nahiz eta bilerak zonaldeka banatu, beste zonalde bateko bilerara etor daiteke.***

# Parte hartze prozesua: "Herri Kontseilurako lehentasunak eta Eskola Zaharra"

Eskola Zaharraren erabilerari buruzko ideiak zehazteko batzarra martxoaren 27an, asteazkena, 19:30ean

Herritarrek betetako galdeketak oinarri hartuta, Herri Kontseiluak bere lanerako lehentasunak markatu ditu.

Bestalde, Eskola Zaharraren

erabilerarako proiektua egiteko asmoa du. Proiektu hori, ondoren Donostiako udalean aurkezteko.

Galdeketetan ateratako

ideiak definitu eta proiektua aurrera eramango duen lan taldea osatzeko batzarra antolatu du martxoaren 27an 19:30ean.

## Espaloia obretan

Otsailean zehar Etxe Nagusi inguruko espaloia konpontzen aritu dira. Aukera ikusita, Herri Kontseiluak espaloi zatiaren asfaltoa konpontzeaz gain, kurbako "bisibilitatea" hobetzeko bazterrak garbitzea eskatu zion Donostiako Udalari.

Bazterrak garbitu ahal izateko, lur jabearen baimena

behar dela erantzun zion honek.

Beste behin ere, entzun gor egin eta aspalditik zintzilik dagoen gaiari ez diola heldu salatu du Herri Kontseiluak. Bestalde, hase-re agertu da Herri Kontseilua, oraingoan ere, obraren berri aurrez izan ez duelako.



## Neguko pala txapelketa aurrera doa

Giro ona izaten da ostiral arratsaldero jokatzeko diren partiduetan eta maila oneko partidak nagusitu dira. Aste Santura arte luzatuko da txapelketa eta apirilaren 5a inguruan jokatuko dira final erdiak eta finalak.

Ostiral arratsaldeetan 18:30etatik aurrera frontoira hurbildu eta partidak ikusiz gozatzeko deia zabaltzen dute antolatzaileek.

## Bideak konpontzeko eskaera

Agiti bidea eta Biorretatik Usurbilera doan bidea markatu ditu Herri Kontseiluak lehentasunezko

Gipuzkoako Foru Aldunditik herri bideren bat konpontzeko diru laguntza etor liteke.

Hori horrela, Herri Kontseiluak herri bideen azterketa egin eta lehentasunak markatu ditu. Agiti bide-

ari eman dio garrantzia; egun duen egoera kaskarra eta duen trafikoagatik.

Biorretatik Usurbilera doan bidea konpontzea ere eskatu da. Herri Kontseiluak idatzia Donostiako Udalean sartu du.



# “HERRITARRENGANA HURBILTZEA IZAN DA GURE HELBURU NAGUSIENE- TAKO BAT ETA MODU EZBERDINETAN LORTU DUGULA IRUDITZEN ZAIGU”

*Maiatzean Herri Kontseiluaren aldaketa izango dela eta, oraingo alean bertako kideekin elkartzea pentsatu dugu, lau urte hauetako lana baloratzeko. Ez dugu aukerarik izan guztiekin batera elkartzeko, baina hala ere, motzean guztiak erantzun dituzte galdera pare bat. Kideei dagokienean aldaketarik ere izan dute, Kote De La Granjak arrazoi pertsonalengatik taldea utzi behar izan zuen eta bere ordeko moduan Iñaki Aizpurua sartu zen.*



**Lau urte hauetako helburu nagusia parte hartze prozesua martxan jartzea zela adierazi zeniguten lanean hasi berritan. Zertan da? Zer balorazio egiten duzue?**

Bukatu gabe dago guztiz baina bi helburu nagusi bete ditugu orain artean egin dugunarekin; batetik, herritarrak aktibatzea genuen helburu eta bestetik Herri Kontseiluarentzat baliagarria izatea, aurrera begira lehentasunak finkatzeko eta ibilbidea zehazteko.

Hortaz aparte, herritarrak galdetuak sentitzea, garrantzitsua da. Jendeak orokorrean harreman gutxi dauka herri kontseiluarekin eta prozesu honek hurbiltzeko aukera ere eman digu. Gainera, guztiok jarri gara herriak zer behar dituen pentsatzen eta hori oso positiboa da. Etxetara joateak, gertutasuna sentitu arazi digu eta bide batez herritarrak ere entzunak sentitu dira. Suteen kasuan adibidez, kaltetuekin elkartu ginen eta oso esperientzia aberasgarria izan zen.

Egia da, agian sare zabala lortzearen helburua ez dugula lortu, zonaldeka arduradunak zehaztearena. Ez dugu egitura horrelako sare bat baina egia da Herri Kontseiluak erreferentzialtasun bat irabazi duela neurri batean. Adibidez, emailean askoz jende gehiago dago orain eta jendea informatua eta gertuago sentitzen da.

Beste kontu bat da herritarrak

aktibatzea, nola egin jende hori lanera hurbiltzea, parte-hartzea. Eta hori ez da oso erraza, kosta egiten zaigu. Errealitatea da bakoitzak bere bizitza duela eta mila kontu. Hala ere gauza puntualetan jendea aktiboa da eta parte hartzen du. Baina egia da, parte hartze prozesuaren helburuetako bat jendea batzordeetan inplikatzeko lortzea zela eta

“Komunikazioari dagokionean, aurrera pauso handiak eman ditugu”

hori ez da hainbeste lortu.

**Zer ondorio nagusi atera dituzue parte hartze prozesutik?**

Eskola Zaharraren erabilera zehaztea litzateke bat. Horretarako batzorde bat sortzeko asmoa dugu eta talde horretan diseinu bat lantzearena. Ondorenean herri batzar batean aurkeztuko litzateke, guztion onarpena izateko. Eskola Zaharrari guk ere aparteko garrantzia eman diogu prozesu honetan, Udaletxeak herriatik ateratako proposamena kontuan hartuko zuela esan baitzgun.

Antolatzen diren ekintzen balorazioa egitea ere ateratako ondorioetako bat izan da. Eta pixkanaka zenbait tresna martxan jarri dira hori gauzatzeko.

Hizkuntza tresna integratzaile bezala ere kontuan hartzea garrantzitsua zela ohartu ginen. Eta adibidez, orri informatiboan Herri Kontseiluko berriak euska-

raz eta gazteleraz zabaltzen ditugu erdal hiztunentzat.

Garraioa hobetzea ere beste puntu garrantzitsu bat izan da eta lantzen ari gara. Batetik autobusaren goizeko ordutegiari dagokiona eta bestetik landa-ingurunekeo bizilagunei irtenbide bat eman nahian.

Etxebizitzaren arazoa ere azaldu da. Babes Ofizialeko etxebizitzak herritarrentzat gelditzearen aldeko sinadura bilketa bat martxan jarri genuen eta udaletxean aurkeztu genuen.

**Barne funtzionamenduari dagokionean, lan talde ezberdinetan banatuko zinetela adierazi zenuten. Zer balorazio egiten duzue talde bakoitzak egindako lanaz?**

**1. Garapen soziala:**

Lantalde honen barnean, lanerako alor ezberdinak genituen; komunikazioa, koordinazioa, partehartzea, gazte lokala, 3. adina. Komunikazioari dagokionean, aurrerapauso handiak eman ditugu. Web orria martxan jarri da eta herritarrei informazioa zabaltzeko email taldea ere zabaldu da. Paneli dagokienean berriak egiteko asmoa dugu. Orri Informatiboan Herri Kontseiluko berriak zabaltzeari garrantzia eman diogu eta erdal hiztunengana iristearen garrantziaz ohartuz, hizkuntza ere kontuan hartu dugu. Gazteen gaia ez dugu askorik landu, garrantzia duela badakigu, lehenasunezko







gai moduan adierazi da parte hartze prozesuan, baina azkenean ez dugu lanketarik egin. 3. adinari dagokionean zerbait egiten saiatu gara, hau ere parte hartze prozesutik ateratako behar bat izan da. Guretzat helburu nagusia aktibatzea zen, eta nahiz eta guk hasieran genuen asmoa ez den aurrera eramanean, bere martxa hartzen ari dela ikusi dugu eta aurrera.

“ Herriari bizia ematen saiatu gara ”

## **2. Hirigintza, azpiegitura eta zerbitzuak:**

Zerbait egin dugu, baina egia da batez ere, etorri denari erantzun bat ematea eta koordinatzea izan dela gure lana. Hala ere, adibidez Pilotegiko bidearen konponketa prozesuan, bertako auzokideekin elkartu ginen eta beraien iritziak kontuan hartu eta Udalari adierazi genizkion. Adibide honekin guztiok ikusi genuen zaila dela gai hau aurrera eramatea. Auzokideek bide guztia asfaltatzeko nahia adierazi zuten eta Udaletik esan ziguten 2019. urtean egingo dutela. Hala ere, ez dakigu guk esan bezela egingo duten. Egia da alor honetan eskumenik ez dugula eta askotan saiatu arren, Udalarekin topatzen garela, paret baten aurka bezala. Askotan egiteko dituzten obrak azken momentuan adierazten dizkigute, edo hasten direnean.

Irigarritasunari dagokionean, Donostia mailako plan bat egi-

teko asmoa zutela jakin genuen eta hori horrela izanik hemen herritarrekin biltzea pentsatu genuen, herritarren iritziak biltzeko eta bide batez plan horretan sartzeko aukera izaneko gero, diru kopuru bat lortzeko aukera izan dezakegula. Herritarrekin egindako batzar horretan ateratako proposamenak hauek izan ziren; kaxkoaren

peatonalizazioa edo 30ko abiadurako gune bihurtzea, kaxkoko trafikokoaren antolaketa orokor bat egitea, Bentalegre eta Ameztiko bide-gurutzei soluzio bat ematea...

## **3. Grapen sozio-ekonomikoko lan taldea:**

Lantalde honen egin beharra sektore ezberdinekin harremanak izatea, herrian ohikoak diren ekintzak aurrera eramatea (jai ezberdinak, musa...), herrian antolatzen ziren gauza ezberdina laguntzea... Orokorrean herriari bizia ematen saiatu gara, herrian antolatzen diren jai ezberdinei ikuspegi zabalago bat emanaz eta aparteko ekintzak antolatuz: pintxo-potea, pelota txapelketa... Sektoreei dagokienez, egia da, batez ere lehendabiziko sektoreari dagokionean zentratu garela gehiago, kooperatibako herri proiektua bultzatuz eta bertan parte hartuz. Zerbitzuen sektorea ez dugu hainbeste landu, zerbitzu gida bat osatu

nahi genuen baina oraindik ez dugu gauzatu. Ostalaritza eta turismoa ere ez dugu hainbeste landu eta herrian badugu talde zabal bat horretan ari dena eta ez dugu agian lanketa bat egiterik lortu.

## **Koordinazioari dagokionean, nola baloratzen duzue egindako lana? Batetik herriko eragileen arteko koordinazioa eta bestetik Herri Kontseiluko lan talde ezberdinen artekoa?**

Nahiz eta guztien ahotan izan koordinazioaren beharra, praktikan ez da oso funtzionala izan. Egia da talde batzuk oso fiñak izan direla eta beti azaldu direla, baina zalantza dugu berez duen funtzioa benetan betetzen den. Bileran hauek zabaltzen den informazioa gero benetan taldeetara iristen ote den. Kontuan hartu behar da ere, talde bakoitzaren dinamika desberdina dela, talde batzuk momentu jakin batzuetan aktibatzen direla eta ez da erraza urte osoko dinamika mantentzea. Koordinazio gune honi buelta bat ematea beharrezkoa da, garrantzitsutzat dugu baina berriro aztertu beharko litzateke nola gauzatu.

Herri Kontseilu barneko koordinazioari dagokionean, hilean behin egiten ditugun bilera orokorretan trukatzeko dugu talde bakoitzaren informazioa eta hortaz aparte gai orokorrak lantzen ditugu. Bestalde, dina-

mizatzailearen lana ere oso garrantzitsua da, herritarrenganako pertsona erreferentea baita, bulegoko ordutegi eta telefono batekin. Herri Kontseilua bera ere dinamizatzea da bere lana: bileretako gai ordena bideratu, aktak hartu, gestioak egin...

**Urtean behin Herri Batzar bat egiteko asmoa adierazi zenuten? Gauzatu al duzue?**

Parte hartze prozesuan herritarrek batzarrak maiztasun handiagoan egiteko eskaera adierazi ziguten eta urtean behin egitetik 6 hilero egitera pasa gara. Agian ez da guk nahi adina jende azaldu baina azaldutako herritarrek aktiboak izan dira, iritziak emanaz. Herritarrengana hurbiltzea izan da gure helburu nagusienetako

bat eta modu ezberdinetan lortu dugula iruditzen zaigu.

**Donostiako Udalarekin harreman gutxi zenutela adierazi zenuten lau-urtekoaren hasieran, zerbait aldatu al da?**

Donostiako Udalaren jarrera Igeldoren beharrekiko utzikierarena da eta hitzez Herri

“Herritarrengana hurbiltzea izan da gure helburu nagusienetako bat”

Kontseiluauren papera onartzen badute ere, errealitatean ez da horrela. Komunikazio falta nabarmena da, obren kasuan adibidez.

**Azkenik, zer esango zeniekete hurrengo Herri Kontseiluko kideei?**

Lan taldeak mantentzearen garrantzia azpimarratuko genu-

ke. Horrela bakoitzak zer egin behar duen argi dauka eta guztiok dakigu besteak zer egiten ari diren.

Komunikazioa ere garrantzitsua da, transparentzia izatea. Gauzak egiten ari direla adieraztea nahiz eta agian ez jakin bukaerara iritsiko diren. Herritarrei adieraztea oso garrantzitsua da.

aportazio nagusia aurreko Herri Kontseilutik nakarren esperientzia izan da.

**2.-** Herritarrekin lan egitea satisfazio iturri nagusia dela eta administrazioekin (udala) egiteak frustrazio asko ekartzen baditu ere ekinaren poderioz herritarrentzako garrantzitsuak diren hobekuntzak lortzen direla. Neketsua bada ere, bide hau ondo lantzeak Igeldorentzako diferentzia markatu dezakeela.

## **BAKARKAKO GALDERA-ERANTZUNAK:**

**1.- Orokorrean baloratu azken 4 urteak. Nola sentitu zara, zer aportatu dizu HKK, zer eman diozu zuk, une onak, zailtasunak...**

**2.- Zer esango zeniekete datozeinei?**

### **AINHOA GOROSTIDI:**

**1.-** Orokorrean positiboki baloraturako nituzke azken lau urteak; atzera begiratuta, une positibo gehiago daudela iruditzen zait.

Nahiz eta zailtasunak izan diren, gauza asko ezin amaierara arte eraman gure esku ez zeudelako, aurrez planifikatutakoa baino denbora gehiago eskatzen zutelako edo beste hainbat arrazoiengatik, zailtasun horietatik ere ikasi dudala iruditzen zait.

Taldean ondo funtzionatu dugula iruditzen zait. Lan giroa izan da eta umorerik ere ez

zaigu falta izan. Taldea aipatuta ez naiz 9 kontseilu kideei buruz bakarrik ari; ezin aipatu gabe utzi dinamizatzaileak egiten duen lana; Herri Kontseilua eta herritarren arteko zubi lana, eguneroko beharrei erantzun, planifikatu, diru laguntza, idatzi eta paper kontuak aurrera eraman...

Herri Kontseilutik behar bada, herriaren ikuspegi zabalagorako aukera eman dit; zenbat herritar eta talde ari diren isilean lanean ikusteko aukera alegia.

**2.-** Animatzeko esango nieke. Orain arte euren taldeetan egin duten lana bezala, orain Herri Kontseiluak behar dituela.

### **MIREN ZINKUNEGI**

**1.-** Gustora aritu naiz lanean, ekipo moduan lan egitea lortu dugu, giro onean eta ondo koordinatuz gure artean. 4 urte hauetan esango nuke une on

gehiago egon direla txarrak baino. Beti daude une txarragoak ez zarelako iristen edo ez zarelako gustora gelditu egindako lanarekin... baina orokorrean pozik nago. Herritarrei dagokionez pentsatzen dut parte hartu dutela, lagundu egin digute eta hori oso eskertzekoa da.

**2.-** Animatzeko esango nieke. Lortzen denean asmo, jai, lan edo proposamen bat aurrera ateratzea nahiz eta txikia izan pozgarria izateaz gain konturatu arazten dizu zenbat gauza lortu daitezkeen denek pixka bat jarrita eta elkarlanean arituta. Eta bestalde gauza asko ikasten dira.

### **MAIDER ILLARRAMENDI**

**1.-** Ongi sentitu naiz. Taldean oso ongi moldatu gara, harreman polita izan degu. Horrek asko egiten du lanerako orduan. Momento batzuetan, lan pertso-



nala zela eta agobio puntu bat sentitu dut, denbora faltarengatik baina orokorrean oso ongi. Herri kontseiluak herritar gehiago ezagutzea eta herritarrentzat lan egitea eman dit, aberasgarria izan da. Nire batzordearen eginbeharren artean, parte hartze prozesua genuen, prozesu luzea izan zen, nik lehen bai lehen itxi nahi nuen baino luze joan zen azkenean, hala ere emaitza interegarriak atera dira eta iruditzen zait, aspaldian herrian egin beharreko lana zela.

**2.-** Datozeneri esango nieke, gauza asko ikasten direla lau urtetan, asko ematen dizu, gai askoren inguruan gauza berriak ikasten dira, nere kasuan behintzat horrela izan da. Harremanak egiten dituzu herritarrekin.

### **AITZIBER GABILONDO**

**1.-** Hasiera batean beldurrez ekin nion bideari, baino talde polita osatu degula esango nuke eta gustora sentitu naiz.

Zailtasunak suertatzen dira askotan zerbait egiteko denboraz larri zabiltzanean arrazoi desberdinengatik, baina horrek berak une onak ekarri dizkigu askotan, egin beharreko hori egitea lortutakoan!

Herri kontseiluko talde kideez gain ere eskertzekoa da alor desberdinetan herritarrak eman diguten laguntza, lan talde desberdinetan arituz, jai eta festa desberdinetan hainbat turno eginez...

**2.-** Animateko esango nieke, giro onean egin beharrak erre-zago egiten direlako.

### **IKER ZINKUNEGI**

**1.-** Ba bukaeratik hasita zailtasun nagusia Herri Kontseiluak ekartzen dituen konpromisoak bakoitzak dituen konpromisoe-

kin bateragarri egitea da, honekin batera dudik gabe Udalaren jarrera azpimarratuko nuke arazo nagusi bezela. Une onak aldiz udalaren jarrera gai batzuetan aldatzea lortu dugunetan izan da, gutxitan izan bada ere pena merezi izan du. Herri Kontseiluaren parte izateak herriaren ezagutza handiagoa eta sakonagoa ekartzen dizu, herritar desberdinengana gerturatzeko eta hauen kezka ezagutzeko aukera ere ematen dizu. Herri Kontseilu honi nire

### **AITZIBER ALZUA**

**1.-** Lau urtetan, normala den bezala, denetik egon da, baina orokorrean, gustora sentitu naiz talde-lanean. HK-k herria hobeto ezagutzeko aukera eman dit, barru barrutik bere funtzionamendua, dinamikak, zailtasunak eta aberastasunak ezagutzeko aukera eman dit beste ikuspegi batetik... Eta nik, berriz, ahal izan dudun neurrian hauen inguruan nolabaiteko aportazioak egiteko aukera izan det.

Azpimarratzekoa izan dena taldea bera izan da zalantzarik gabe. Zailtasunez aritzekotan, berriz, Udalarekiko harremanak sortzen duen frustrazioa da nabarmenena neretzat; herriaren alde lan egin nahi eta horma batekin aurkitzerakoan sortzen dena.

**2.-** Datozeneri, ilusioz aritzeko esango nieke, herriarekin eta herriarentzako lan egitea gauza ederra izan daiekeelako ilusioz egiten denean.

### **IORITZ GALPARSORO**

**1.-** Aurrera ateratako asmoak eta izandako trabak eta zailtasunak baino gure arteko giro ona azpimarratuko nuke nik. Talde giro ona izan dugu eta horrek asko errazten du edozein dela ere lana edo ardura.

**2.-** Herriaren alde egiteko

aukera ona da. Herritarrekin, herriko talde eragileekin harremanak, sarete horren parte egiteko aukera ederra.

### **ANDER ZUBELDIA**

**1.-** Orokorrean gustora aritu naiz bai egokitu zaidan lan motan eta baita talde lanean ere. Lan giro polita izan dugula uste dut eta hori ezinbestekoa iruditzen zait. Lan talde desberdinetan banatu gara herri kontseiluko kideok, baina elkarren berri une oro jakin dugu eta momentuan talde bakoitzak zuen lan karga arintzea lortu dugula uste dut, elkarri lagunduz. Esperientzia aberasgarria da arlo pertsonalean ere.

**2.-** Batik bat gogoia eta ilusioa ekar dezatela, herritar asko izango dituztela laguntzeko prest. Esperientzia aberasgarria dela. Igeldotar guztiak Herri Kontseiluarekin gertutasuna izan eta elkarlanean aritzea da gure beharrak eta proiektuak aurrera ateratzeko klabea, honetarako komunikazio ona eta azkarra izatea ezinbestekoa da. Herri Kontseilua Igeldotarron ordezkari da, geure sentitzen dugu askok eta hori adierazi behar diegu H.K-rekin orain arte harreman gutxi izan dutenei.

### **IÑAKI AIZPURUA**

**1.-** Ni azken bi urteetan aritu naiz lanean, Koteren orde. Egia esan, sartu nintzanean lan taldea osatuta topatu nuen. Batzordeetan banatuta eta lan talde bakoitzak garbi zuela zeintzuk ziren euren egitekoak eta lanak. Lan giroa eta harreman ona taldekideen artean. Horrela gustura lan egin liteke.

**2.-** Aurretik lan polita dutela. Herriak benetan behar duen erakunde bateko ordezkari izatea aberasgarria dela. Beraz, animatzeko!



Inauteri usainean gatoz oraingoan. Eta atzear begira jarrita, eskolan ohitura izaten zen inauteritako taldeko argazkiak topatu ditugu. Ustez hain zaharrak ez direnak, baina kontuak ateraz gero, urte mordoxka bat pasatakoak. Ea ezagutze dituzuen garai bateko haur txiki horiek nortzuk diren!



**A**tal honetan, herriko argazki zaharrak plazaratu nahi ditugu. Herriko historia eta istorioak kontatuz, zer hitz egina eta pentsatua emanaz. Gure asmoa herriarekin lotura duten mota ezberdinetako argazkiak jartzea da, eta bide batez, zure etxeko bazterrak astintzea ere eskatu nahi dizugu, interesgarriak izan daitezkeen argazki zaharrak dituzun begiratu eta gurekin konpartitzeko. Guztion artean lan polita egin baitezakegu. Animatu!

Argazkiak pasatzeko deitu 627 756 185 (Jabier), 645 735 762 (Larraitx) edo emailaz bidali igeldokoorria@gmail.com helbidera.



# Danborra jo zuten herriko txikiek

Urtarrilaren 18an eskolan Danborrada ospatu zuten. Eguraldi txarra egin zuenez, frontoian bildu ziren ikasle, irakasle eta gurasoak. Bertan batzuk danborrak eta beste batzuk berriz barrilak astindu zituzten 6.mailako Danel, Lur, Iban eta Noraren gidaritzapean. Donostiako martxarekin hasiera eta bukaera eman zioten danborradari.

Ondoren ikasle guztiek indarrak berritzeko, angularik ez baina, txokolate eta bizkotxoa jan zuten.



# Inauteriak iritsi dira eskolara

Aurten, hiruhilekoan lantzen ari diren proiektuarekin bat

eginez, "Euskal Herriko pertsonaiak" gaia aukeratu dute.

Martxoaren 1ean ospatu dituzte inauteriak eskolan.

# Aurten ere Sahararen aldeko janaria ildu da

Azken urteetan bezala, aurten ere, saharar errefuxiatuen aldeko janari bilketa abian jarri dute eskolan.

Errefuxiatuek bizi dituzten baldintza larriei laguntza emateko, "Piztu itxaropena" euskal karabanan parte hartu da.

Urtarrila bukaeran burutu zen egitasmoa. Itsas Aurre eta eskola izan ziren bilketa

puntuak eta aurreko urteetan bezala, janari ugari bildu da herritarren erantzunari esker.

Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete parte hartu duten herritar guztiei; Donostialdean guztira 12.654 kilo janari eta 67 kutxa konpresa bildu baitira.

Karabana martxoaren 2an abiatuko da Laudiotik.

# "Igeldotik mundura proiektuan murgilduta"

Hiruhilabeteko honetan "Igeldotik mundura" proiektua lantzen ari dira eskolan. Ikasle gazteenek Igeldo ezagutuko dute; ikasleak non bizi diren, bertan dauden tabernak, jate-txeak, parkeak...

Ikasle zaharragoak berriz, urrutiago joango dira; Euskal Herria, Espainia, Europa eta Munduan zehar bidaiatzeko aukera izango dute.

## TOPA HERRIKOIA HERRIARI ESKERRAK EMATEKO

Urtearen amaierarekin batera, abenduaren 30an, Topa Herrikoia antolatu zuen Itsas Aurrek elkarteak. Azken urteetan desanexioaren borrokak hartutako bide judizialak sortutako zor ekonomikoa ordaintzea lortu dela eta, herriari eskerrak eman nahi izan zioten modu honetan. Herritar askoren laguntzari esker lortu baitute zorra ordaintzea. Era berean, azken 20 urteetako ibilbidearen irakurketa ere egin zuten eta garbi adierazi zuten desorekan oinarritutako borroka bat izan dela epaiketa bide hau.

Igeldoren kasuan, herriak ordaindu behar izan duela sortutako gastu guztia (zaila den arren diru kopuru guztia zenbatekoa izan den kalkulatzeko, 2012tik hona herritarrek beren poltsikoetatik 63.000 euro inguru ordaindu dituztela kalkulatu zuten) eta Donostiako Udalak

zein Aldundiak berriz, diru publikoa erabili dutela. Baina era berean, zor ekonomikoa hori gainditu izana ere, herri sentimenduaren adierazle dela azpimarratu zuten. Herritarrek benetan sinesten duten borroka dela eta argi adierazi zuten, behin eta berriro ere, oztopo guztiak gainditzeko adinako indarra badela herrian.

Hala ere, bide judiziala amaierara iristen ari den arren, benetako arazoa ez dela konpondu gogora arazi zuten, herri honen borondatea berdina izaten jarraitzen duela. Arazo politikori irtenbide politikoa eman behar zaiola eta horretarako borondate politikoa izatea besterik ez dela behar. Azkenik, epaia otsailaren 20an izango dela gogora arazi zuten eta martxoaren hasieran jakingo dela zer erabaki hartu den.



## “Gure zuhaita” proiektuari eman zaio bere hazia

Abenduan Guraso elkarteak “Gure zuhaitza” proiektua jarri zuen martxan. Helburua minbi-ziaren ikerketarako dirua biltzea izan zen.

Martxoan izango duten guraso batzarrean erabakiko dute

bideratuko den diru kopurua besteak beste. Hurrengo orri informatiboan informazio gehiago emango badute ere, elkartetik eskerrak eman nahi izan dizkie proiektuan bere alea jarri duten herritar guztiei.

## GABONETAKO KANTALDIA LEZKARRIREN ESKUTIK

Urtero bezala, Lezkarri abesbatzak Gabonetako kantaldia eskaini zuen herrian, abenduaren 30an. Aurtengoa ez zen areto barneko kontzertu serio eta formala izan. Plazan eta herriko tabernetan abestea erabaki zuten. Oso beharrezkotzat jotzen dute Lezkarriko kideek, egunerokotasunean pixkanaka lortzen ari diren aurrerakuntza, jendearen aurrean azaltzea. “Gure lanaren eta ahaleginen uzta plazan edo kontzertuetan biltzen dugu”.

Abestutako Gabon kanten sorta, Laida Otaduy zuzendaria-ekin batera aukeratu zuten eta giro oneko jardunaldia izan zela adierazi digute. Gainera, Itsas Aurre elkarteak antolatutako topa herrikoiarekin batera abestu zuten, hamaiketako goxoa ere izan zuten eztarriak berotzeko.

Ondoren, Mendizorroitz eta Txapela tabernetan ere abestu zuten.

## “Bakarrizkanta” umorezko antzerkia

Otsailaren 17an, Barry Manley aktore irlandar-euskaldunaren eskutik “Bakarrizkanta” antzezlanaren izan zen kultur etxean. Barry euskararekiko sentitzen duen maitasunari buruz aritu zen umoretik musikaz lagunduta.

60 lagun inguru bildu ziren eta ikusleek barre egiteaz gain, kantatzeko aukera ere izan zuten.



## Din din elkarteak 10.urteurrena ospatu zuen



Giro ederrean ospatu zuen Din dinen bere 10.urteurrena.

Kalean giro hotza bazen ere, giroa epeltzea lortu zuten bertaratutakoek. "Lunch" ederra dastatzeko aukera izan zen. Amets

Arzallus eta Sustrai Colina ere bertan izan ziren bertsoetan.

Jabier Sorondori ere omenaldi txiki bat egin zitzaion urte hauetan guztietan diruzain gisa egiten ari den lana eskertuz.

Din din elkarteak eskerrak eman nahi izan dizkie bertaratu ziren guztiei; hala ere, bazkide gehiago ez etorri izana faltan izan zutela adierazi dute.

## Martxan da Patin Roller ikastaroa

Udaberria iristear dela eta, martxan da haurrentzako Patin Roller ikastaroa. Hiru hilabeteko iraupena izango du, martxoaren 6tik maiatzaren 29ra arte.

Asteazkenetan izango da arratsaldeko 17:30etatik 18:30era. Eskolako kantxan arituko dira eta eguraldi txarra eginez gero berriz, frontoian.

## Olentzero Mari Domingirekin iritsi zen estreinakoz

Abenduaren 24an Olentzero Mari Domingik lagunduta iritsi zen iluntzean plazara. Gustura hartu zuten bisita herriko txikiek eta ez hain txikiek ere. Gau berezi horretan etxez etxe egin beharreko

lana aurretik bazuten ere, Mari Domingik izan zuen "Gure zuhaitza" proiektu solidarioan euren ekarpena egiteko tarte, berak ere zuhaitzari lazoa jarritz.

## Parte hartze handia gabon eskeetan

Aurten ere parte hartze izugarria izan da Gabon eskeetan. Lehenago bukatzeko helburuarekin eske bakoitza bi taldetan

banatuta egin zen aurreko urteetan bezala. Kixmik eskerrak eman nahi izan dizkie bertan parte hartu duten herritarrei,

bai kantari atera zirenei, bai eta etxeetako ateak zabaldu zizkieten guztiei ere.





## "Musika taldeak" gaia aurten inauterietan

Martxoaren 1ean inauteriekiko gozatzeko aukera herrian.

### Egitaraua:

**17:00etan** Haurren desfilea plazan

**19:00etan** Trikipoteoa kaskoko tabernetatik

**21:00etan** Afari-merienda Itsas Aurren

**23:00etan** Helduen desfilea plazan

**00:00etan** Karaokea elkartearen

### **OHARRA:**

**19:00-22:30 "Photocall" Txapelako eszenatokian**

## AGENDA!!

### **MARTXOAK 7 eta 14**

**19:00 eta 20:00**, Zonaldeko hauteskundeetako batzar informatiboak.

### **MARTXOAK 8**

Greba feminista

### **MARTXOAK 9**

**20:30**, Emakume Afaria, Mendizorrotz jatetxean.

### **MARTXOAK 22 eta 29**

**18:30**, Pala txapelketako semi-finalak.

### **MARTXOAK 27**

**19:30**, Eskola Zaharrari buruzko batzarrak.

### **MARTXOAK 29**

**22:00**, Laparen txapelketaren hasiera Itsas Aurren. Mus partidak ostiralero, apirilaren 12ra arte.

### **MARTXOAK 31**

Ate Irekiak Kooperatiban

### **APIRILAK 5**

**18:30**, Pala txapelketako finalak

### **APIRILAK 12**

Korrika Donostian

## OHARRA

Iritzi-artikulua argitaratzeko ezinbestekoak dira: egilearen izen-abizenak, kontaktu-bide bat, testua euskarazkoa eta inolako asmo iraingarririk gabekoa izatea. Bestalde, Orri Informatiboak ez ditu bere gain hartzen atal honetan esaten direnak.

Inork iritzi-artikulu bat bidaltzeko interesik balu, hurrengo aleak abenduan eta martxoan izango dira (igeldokoorria@gmail.com).



**IGELDOKO  
HERRI  
KONTSEILUA**

Itsas Aurre Kultur Etxea  
Igeldoko plaza 4, 20008 Igeldo  
Tfona. 943 313 030  
Emaila: igeldokoorria@gmail.com



Laguntzailea Donostiako Udala